

# Nafarkaria

Nafarroako gehigarria / Ostirala, 1993ko abuztuak 27 / III. urtea / 90. zenbakia

## Mendillorri, hiri berria

Nafarroako etxebizitzaren arloko espekulazioarekin hausteko lehendabiziko ahalgin nagusia izan da, 'makroproiektua' izendatu duten bezala, eta aurten, arazo askotxo gairatuta, ibiltzen hasia da dagoeneko. Eraikinak altxatuak daude, eta etxe asko bukatuta. Jendea uda aldean hasi da etortzen, baina gehiena irailean helduko da. Bitartean, hiria azken ukituak jasotzen ari da, bizilagunei harrera ona egiteko. Igeltseruak, iturginak, etengabe ari dira lanean, eta lokal askotan, 'Laster zabalduko da' lema ikus daiteke.


Ez da dena, baina, pozgarria, pisuan dagoeneko bizi direnak askotxo izanik ere, arazoak dituenik ere ez baita falta. VITRA kooperatibak bultzatutako lanek, kasu, hilabete inguru daramate geldirik, eta aste honetan ziren biltzekoak alde guztiak. Aste honetan bertan ere behin-behineko kontsultorioa zabaldu zuen Osasunbideak, hiri berriak behar duen bezala.



*Bi hormetara*

**JOSETXO AZKONA**

**E**rria nirea da oso, eta hizlaria J. Rivas, 'Ajoblanco' aldizkariaren partaidea zela jakin banu, mintzaldira joango nintzatekeela aitortu beharra daukat. Nafarroako Museoa aireeratu hitzak aditu ez arren, prentsaren bidez jaso dut bertan esandakoaren laburpena, eta alde horretatik, ez dit huts egin, nire ustez, gaztelaniaz argitara ematen direnen artean, hoberenetzat jotzen ahal da aldizkari honen akuilariaren ide multzoak. Kulturaren beharraz, sormenaren prozesu nekosoaz, zoriontasunez eta intereseko beste gai batzuez aritu da idazle eta kazetari hau, era argitsu batez azaldurik eta, halaber, hausnarketarako juzku eta galdera zorrotzik eginik. «Badago zoriontsurik izaterik baldin eta duintasunez bizitzeko beharrezko baliabide materialak lortuz bat izpiritu-beharrak asetzen ez badira?». Ezetz iduri du Rivasen-ek, eta ez naiz ni izango kontra egingo duenik. Hariari jarraituz, sentikortasunaren aldeko defentsa sutua egiten du ere, nahi baino gehiagotan horren krudela, horren bizigaitza den bizitza honetan zoriontsua ahal izateko, sentikortasun hori premia-premiazko delarik gizakumea sortzaile izango bada, bestalde. Eta antzeko proposamenaren alde agertu da baita B. Atxaga ere. Udako EHUan egindako agerral-di batean, berriki Donostian egin. Hargatik, badiudi zentzuzkoa dela sinestea, egia borobila delakoan, zoriontsua izateko, edo kreative lanak burutu ahal daitezen, 'sentikor' behar dela izan. Haria luzexea denez, tira egin diezaiozun puntatik, finezia, badaezpada. Sentsibilitateak goiti egin baldin badu artemolde ezberdinen artean, poesia dateke alor hori, eta poetak, haren eredurik nabarmenenak. Aldi bereko egia-gezurra. Egia paradigmatiko hau kili-kolo jartzen dute, behintzat, zenbait poetaren jokatibideek. E. Pound eta J. Mirande, kasu —biak gorengo sortzaileetat jo ditza-kegunak—, faxista entzutetsuak izan ziren beren garaian. Ez dago jakiterik zoriontsuak izan ote ziren, baina bagaude esateko moduan beraien aukera ideologikoak mila miloika laguni 'zoriona' erakarri ez ziola, eta hara non, haien poemen ederra, haien sentiberatasuna hitzak arte bihurtzeko. Are gehiago oraindik, R. Karadzic, Sarajevo errausten ari den buruzagi serbiarra, psikiatra ezezik, poeta ere bada, eta itxura guzien arabera, nahiko arrakastatsua. Izan ere, Montenegroko poesi sari nazionala, Risto Ratkovi izenekoa, beretzat izan da. Gerra kriminala bezain poeta ona, ondorioz... Gure sentsibilitate finari min emanatik, poetaren bihotzean ere habia egiten baitu basapiztiak.



Etxeak altxatuz doazen neurrian, kale eta plazak ere jendez betetzen hasi dira, bereziki hurrez, populazioaren ia gehiengoa izanen baitira.  
JOXE LACALLE / ALBERTO BARANDIARAN

## Gure aukerak


### Ugarrongo arroila

Ugarrongo potxa edo arroila Arteta ugaldearen irteera da, Iratirantz doanean. Urralbeitin aipatu ematen dio ura, Urralbeitin aipatu beste ugalde handia aurkitzen duen arte. Frankotan aipatu dugu zonalde guzti honen bakardadea eta ezezagutza. Ez da bertan mendi garrantzitsurik, ez uda pasatzeko toki ezin aproposagorik. Ez da tabernarik edo jatetxe famaturik, eta, ia, ez dago jenderik. Baina, hala ere—edo horregatik, hain zuzen ere—, merezi du bisitalditxoren bat, bakardadea zer den jakiteko, sikiera.

Herri ia hutsak daude denak—Berroia, Arieltz, eta abar—, baina beste garaietan jende franko izan zuen. Borda eta hondakinek aspaldiko ganaduaren garrantziaz ohartarazten digute. Egun soilik ardi txurrak dabilza bertako amildegia eta baso gogorren artetik.

Bidea Arripodas eta Elkoatz bitarteko errepidetik ateratzen da, eta 8,300 kilometrotan ekialderantz ateratzen den pista hartu behar dugu. Pista amildegirantz doa, ugaldea aurkitzen duen arte. Bi izen dauzka: Areta edo Imirizaldu. Aurreraxeago harkaitz bateraino helduko gara, eta hortik menderatzen da inondik baino hobeki arroila osoa.

Aurrera segituta Berroiara



J. APEZTEGIA

helduko gara. Herri hutsa, esan bezala, nahiz eta etxeek oraindik zutik dirauten. Berroiatik asfaltatu gabeko errepidea hartu, ibaiaren ondotik, Murillo eta Berroia bitarteko errepidetik. Hor iparralderantz hartu, Arieltzko jaurerrira heldu arte. Hau ere jenderik gabe bizi da duela askotxotik hona.

Arieltz nabarmen ateratzen da bidea, eta amildegia jaitsita, eskuinaldean antzeman daitekeen arroilarantz joan behar

dugu. Hor daude trikuharri sonatuak: Aikoa, dagoeneko desagertuta—suntsituta—, Aikoa II, eta Ugarron barruan dagoen hirugarren bat. Hiruak Toma Lopez Sellesek aurkitu zituen 1959an.

Gertu ere aurkituko ditugu Ugarrongo bordak, eta beste leporaino igo ondoren, jaitzierari ekingo diogu, Irunberri eta Adoin bitarteko errepide ondoan dagoen borda ikusi arte. Hortik hasierako tokira.

#### ASTEKO PERTSONAIK



**Luis Maria Perez Suarez**  
Leireko abadea

**L**uis Maria Perez Suarez Leireko abade izendatu zuten joan den larunbatean, eta igandean bertan Silostik Leirera abiatu zen izendapena onartzeko. Perez Suarez, modu honetan, Leireko bigarren abade bihurtu da, 1961. urtean Vatikanok Leireri abadetzat titulu kanonikoa itzuli zionetik. Lehenengo abadea Augusto Pascual Diez izan da baina 66 urterekin bere karguari uko egin dio. Abade berria Pauletan sartu zen eta bertan egin zuten apez. 1970. urtean Paulen kongregazioa utzi eta Silosko komunitatean sartu zen. Burlatakoko monasterioan priore eta nobizioen maisu izan zen. Abade izendatu baino lehen idazkari eta irakasle lanak betetzen zituen bertan. Leireko abade berriak azaldu duenez, «abadea familiaren burua da, eta guztien gidari espirituala».



**Jose Luis Beaumont**  
Abokatua

**J**ose Luis Beaumont Itoizko Koordinakundearen abokatua atxilotu zuten Goardia Zibilak igandean, urtegiaren aurkako protestaldian parte hartzen ari zela. Iruñeko Goardia Zibilaren komandantziara eraman ondoren, «ordena publikoa hausteagatik» astelenean Agoizko Auzitegian deklaratu zuen eta ordu erdi geroago aske utzi zuten kargurik gabe. Auzitegiaren kanpoko aldean 200 pertsona inguru bildu zen eta Beaumont deklaratu agertu zenean, txaloka hasi ziren. Igandean Agoitzen gertatutako istiluen ondorioz ere, Nikolas Unziti Itoizko laguna zauritu zuen Goardia Zibilak oso gertutik jaurtikiriko pilota batek. Istiluetan 150 pertsona inguru sakabanatu zituzten Goardia Zibilek eta zinpeko goardiak.



**Miguel Sanz**  
Lehendakariordea

**M**iguel Sanz Nafarroako lehendakariordeak 1994. urterako Nafarroako funtzionarien soldaten igoera geldiaraziko dela iragarri du. Sanzek igandean adierazi zuenez, «Gobernuak sindikatuari azalduko die soldaten igoeraren geldialdi hau hitzarmen berria negoziatzeko orduan, aurtun bukatzen baita aurrekoa». Bere ustez funtzionariak kontuan hartu behar dute beraien egoera, «beste talde batzuenaren aldean», ona dela. Halaber, gaur egun, ordain handiagoa eskatu baino, lan finkoa edukitzea garrantzitsuagoa dela erran du Miguel Sanzek. UGT sindikatuak, besteak beste, gaitzetsi egin ditu adierazpenak, eta krisi garaia «denek, ez bakarrik langileek» sumatu behar dituztela azaldu du.

#### ERAKUSKETAK



**Roberto Martinen** margo erakusketa egongo da ikusgai Zangozan, bertako Kultur Etxean. Erakusketa abuztuaren 6tik 29ra egongo da zabalik.

**Xabier Soubeleten** margo erakusketa izanen da ikusgai Elizondoko Arizkunenea Kultur Etxean. Abuztuaren 6tik 29ra izanen da zabalik, ohizko ordutegiarekin.

**Jaietarako kartelen** erakusketa egongo da Noainen abuztuaren 3in hasita irailaren 10era bitartean. Erakusketa Kultur Etxean egongo da ikusgai arratsaldeko 5etatik 8ak arte.

#### ANTZERKIA



**El cambiazio' antzezlan**a aurkeztuko du Melody Sisters taldeak Noainen, heldu den igandean, abuztuak 29, eta arratsaldeko 8etan. Emanaldia igerilekuetako ostatuan izanen da.

**Historia de una muñeca** abandonada' izeneko antzezlan aurkeztuko du bihar larunbata, hilak 28, Iruña Pequeño Teatro taldeak, Morentinen. Gaueko 10ak inguruan izanen da.

**Kiki, Koko eta Moko'** lana aurkeztuko du Azkona taldeak Azagran, irailaren 3an eta arratsaldeko 7etan.

#### BERTSO SAIOAK



**Sebastian Lizaso** eta Andoni Egaña bertsolariek saioa eskainiko dute heldu den igandean, hilak 29, Atallun, eguerdian eta arratsaldeko zazpitan.

**Andoni Egaña** eta Sebastian Lizaso bertsolari famatuak ariko dira kantari Legasan heldu den astelenean, bertako festak dirrela eta. Emanaldia eguerdiko 13.00etan hasiko da, plazan.

#### MUSIKA



**Orquidea Robinsonen** emanaldia izanen da Berriozarren gaur, ostirala, Eguzki enparantzian. Emanaldia gaueko 10ak inguruan izanen da.

**Platero y Tu** taldearen kontzertua izanen da Noainen, San Miguel plazan, bihar larunbata. Aurretik, A.Z.T. eta Mendeku taldeek joko dute.

#### AHAZTU GABE!

**RHINEKO** Balletaren 'Romeo y Julieta' antzezlan aurkeztuko dute gaur eta bihar, Erriberriko Jaitokian, Nafarroako Jaialdiek. Aurtengo edizioa ixteko modu ederra, talde hau mundu osoan dabilen onenetarikoak baita. Muntai honetan Veronako (Italia) amoranteen istorio tragikoa boltxebikeen Errusia erregatua antzetzua. Bertrand d'Aten bertsio arras diferente eta izugarria, Prokofieven musikaz lagunduta. Hain zuzen ere, Romeo eta Julieta inoiz baino modernoago eta garaikide ikusteko aukera. Gaueko hamarretan izanen dira bi emanaldiak, Jaialdi honetako azkenak, esan bezala.

Ez da balantzea egiteko tenorea oraindik, baina esan daiteke maila ona izan duela aurtengo edizioak. Akaso aurreko urteetan baino kalitate handiagoa zenbait ikuskizunetan, ikastaroek ere gaurkotasun handia izan dute; eta arretaz jarraitu du jendeak. Herrietan ere emaitza ez da txarra izan, nahiz eta Tomas Yerro Jaialdien zuzendariak berak, berriro zentralizatzearen aldekoa dela esan zuen. Hurrengo urterako berrikuntza ote?

#### ADI!

##### EUSKALERRIA IRRATIA FM 91.0

Ostegunero, arratsaldeko 4etan, **30 seme-alaba Nafarroako**. Elkarrizketak.

##### XORROXIN IRRATIA FM 107.5

Egunero 20.00etatik 22.00etara... **Karakola segi hola** gazteendako saioa.

##### RNE RADIO 1 OM 835

Asteazken zehar 20.30etatik 22.30etara... **Zuri eta Beltz** Elkarrizketak, erreportaiak, musika.

##### ARALAR IRRATIA FM 106.2

Asteazken zehar 13.30etatik 14.00etara... Bertako bizilagun eta pertsonai ospetsuei elkarrizketak.

**ARATZURIKO** Txerri Lasterketen kronika zehatza entzuteko aukera emango du Euskalerrira Irratiak heldu den astelenean, goizeko hamarretatik eta hamaikak bitarte. Mundu osoan zehar famatua den lasteketaren nondik norakoak, sailkapenak eta zertzeladak izanen dira aipagai.



## HERRIZ BERRI



### Lakuntza

# Larretxea nagusitu zen aizkoran

PATXI ULAIAR / LAKUNTZA

Igandean egin ziren Behar Zana Lakuntzako frontoian Nafarroako Aizkolarien Txapelketarako kanporaketak, 11 aizkolariaren partaidetzarekin. Donato Larretxea izan zen nagusi, alde handiz gainera, eta bere atzetik Mindegia, Jaunarena, Nazabal eta Senosiain geratu ziren. Bost aizkolari hauek hartuko dute parte Donezteben egingo den aizkolari txapelketaren finalean.

Giro onean, festen erdian, Sakanako herriak gozatu egin zuen igandeko ikuskizunarekin, bertan baitzeuden Nafarroako aizkolaririk onenetakoak. Bero handia frontoian, baina giro alaitsua izan zen, beti ere. Eta emaitzak, kirolari dagokionez, onak, Larretxeak bereziki oso maila ona erakutsi baitzuen. 11 minutu eta 24 segundu erabili zuen zegoen lanerako, hau da, 54 ontzako bi enbor, 60ko beste bi eta 72ko bat mozteko. Larretxea erraz antzera aritu zen, eta ez zuen arazorik



Donato Larretxeak aise irabazi zuen Lakuntzan.

A. GILLENEA

izan nagusitasun osoz bere kontrarioak menderatzeko. Txalo ederrak jaso zituen aizkolaria.

Bigarren Mindegia gelditu zen, 12 minutu eta 50 segundu erabili behar izan baitzuen lana amaitzeko, eta hirugarrena Jaunarena, 13 minutu eta 26 segundurekin. Nazabal izan zen laugarrena, 14 minuturekin eta Seno-

siain ondoren geratu zen: 14 minutu eta 26 segundu.

Saioa hiru txandatan banatu zen —lehendabizikoan hiru eta gainontzeko bietan launa aizkolari—, eta tarteka Iñaki Perurena leitzarrak jendearen txalo ugari jaso zituen, exhibizio polita egin baitzuen 200 kiloko harriarekin, 250koarekin eta biribilarekin.

### Larraun

## Kontsultorioa zabaldu zen asteartean

IRUÑA

Inguruko 12 herrietako 5.718 bizilagunendako kontsultorio berria inauguratu zuen joan den asteartean Callixto Aiesa Osasun kontseilariak, bertako udal agintariak lagunduta. Zentro berri honetara, 593 metro karratu ditu eta lau famili mediku, lau eriazain, farmazialari bat eta laguntzaile administratibo bat izango ditu, eta bertan zainduko dituzte Lerin, Allo, Deikatzelu, Arellano, Arronitz, Barbarin, Lukin, Urbiola, Azketa, Iguzkitza, Labeaga eta Doneztebe-Deioko biztanleak. Osasun Zentro berria, kontsultaz aparte, hezkuntza egitasmoan burutuko dira inguruko beste erakundeekin, baina dagoeneko martxan dauden beste zentroak ez direla itxiko azaldu zuten Osasunbideko agintariak.



**ALTSASU**ko suhiltzaileen parkea egokitu eta berrituko da luze gabe, Nafarroako Gobernuko Barne Saileko zuzendari nagusiak erabakitakoaren arabera. 32,2 milioi pezetako aurrekontuarekin, egokitze lanek xahutuko dute diru kopururik handiena, batez ere ibilgailuendako tokietan eta langileendako gelan. Halaber, babes ofizialeko 21 exzebizzendako 12 milioi pezetako dirulaguntza onartu du Nafarroako Gobernuak.

**LIZARRA** bisitatu zuten atzo ostegunetik Parisen egiten ari den Okzitaniarazko Kongresu Mundialeko partaideak, Garesen eta Eunaten izan ondoren. Agerraldia egin ondoren, Ricardo Ciervide Euskal Herriko Unibertsitateko Hizkuntzaritza katedradunak mintzaldia eman zuen hizkuntza honi buruz. Izan ere, Lizarran XIV. mendera arte mintzatu zen okzitaniaraz, Frantziatik etortitako kolonoek ekarrita eta euskara eta hebraieraren aurretik erabili zuten foruak eta legeak idatzi eta zehazteko. Halaber, Euskal Herri osoan Lizarran soilik gordetzen dira hizkuntza honetan idatzirikako dokumentuak.

## FESTAZ FESTA

### RIBAFORADA

Ostirala, 27:

- 11.00etan Haurrendako jaialdia amildegian, 'Azkona' taldearekin.
- 16.00etan Kontzertua polikiroldegian.
- 17.30etan Txarangarekin kalejira.
- 18.00etan Zezenak eta betizuak plazan eta kaleetan.
- 19.00etan Bi bigantxa askatuko dira plazan kintoendako.
- 21.00etan Entzierroa
- 23.00etan Berbena amildegian 'Digital' orkestrarekin. Atsedanaldian zezensuzkoa.
- 4.00etan Betizuak plazan. Bitartean txistorra eta ogia banatuko da.
- Larunbata, 28:**
- 10.00etan Platoari tiroketa.
- 11.00etan 'Lindus Amapolus' taldearekin jostailuak eta ikuskizunak haurrendako.
- 14.30etan Herri Bazkaria 'San Blas' nekazal kooperatiban.
- 18.00etan Betizuak plazan eta karraketan.
- 21.00etan Entzierroa.
- 23.00etan Berbena amildegian 'Sabrosa Pachanga' orkestrarekin.
- 1.30etan 'Nueva Alaska' orkestrarekin dantzaldia polikiroldegian.
- 4.30etan Txarangarekin jaialdia.
- Igandea, 29:**
- 7.00etan Salda banatuko da amildegian.
- 8.00etan Entzierroa San Blas kalean. Ondoren betizuak plazan.
- 12.00etan Jostailuak haurrendako



San Francisco Javier Plazan.

- 17.30etan Txarangarekin kalejira.
- 18.00etan Bigantxak plazan eta karraketan.
- 21.00etan Entzierroa.
- 23.30etan Pobre de mi.

### ARATZURI

Ostirala, 27:

- 12.00etan Txupinazoa.
- 13.00etan Herri Kirolak.
- 15.30etan Herri bazkaria.

18.00etan 'Abardunbak' animazio taldearekin haurrendako jokoak.

**Larunbata, 28:**

- 10.30etan Platoari tiroketa.
- 11.30etan Haurrendako karts eta gaztelu puzgarriak.
- 13.00etan Mus txapelketaren erdi-finala.
- 18.00etan Dantzariak.
- 17.30etan Txerriekin lasterketa sonatuak.
- 20.00etan Txarangarekin dantzal-

diak.

22.00etatik aurrera Dantzaldia.

**Igandea, 29:**

- 12.00etan Meza Nagusia. Ondoren hamaiketako eta herri-kirolak.
- 14.30etan Mus txapelketaren finalak.
- 17.00etan Pilota partiduak eta ondoren txerri lasterketaren bigarren txanda.
- 21.30etan Txerriaren zozketa eta trofeo banaketa.

### LEGASA

Ostirala, 27:

- 20.00etan Itxafueroa eta ezkil jotzea. Ondoren kalejira herriko musikariarekin, eta herri afaria.
- 24.00etatik aurrera 'Drindots' taldearekin dantzaldia.
- Larunbata, 28:**
- 7.00etan Aurora eta gosaria.
- 10.00etan Dianak.
- 11.00etan Meza nagusia herriko koralarekin eta ondoren hamaiketako.
- 17.30etan Futbito finalak.
- 19.30etan Jotak.
- 20.00etatik 22.00etara Dantzaldia.
- 24.00etatik aurrera. Dantzaldia.
- Igandea, 29:**
- 10.00etan Dianak.
- 11.00etan Mus txapelketa eta haurrendako jokoak.
- 17.00etan Platoari tiroketa.
- 19.00etan Aizkolariak.
- 22.00etatik aurrera, 'Gaubela' taldearekin dantzaldia.



**TUTERAKO** Gazteendako Argibide Zerbitzuari buruz eztabaida aitakia izan da Jesus Markina eta Luis Campoy zinegotziren arteko liskar pertsonalak pizteko, bertako Udalean aspaldi honetan hain ohizkoak diren arazo pertsonalei beste kapitulu bat eransteko, alegia. Arazoa, berez, huskeria da, zerbitzua Gazte eta Kirol arloan edo Hiritar Eragintzan sartu behar duten eztabaida. Horren inguruan eztabaida izan da bi zinegotziren artean, eta Jesus Markinak Campoy zinegotziaren «antzerkirako ahalmena» kritikatu zuen. Campoy zinegotziak Markina jaunak ez duela lanik egiten azaldu zuen duela gutxi.

**BADOZTAIN** herrian egin nahi den hilerri pribatuak haserrea piztu du, baita kritikak ere lurra emateko erabili diren argudioak direla eta. HB taldeak, horrela, alegazioak aurkezteko dagoen epe laburra kritikatu zuen, «berreziki uda garaian izanik. Lanak 150.000 metro karratuko zabalera dauka, baina kontuan hartuz 300 metro inguruan ez dagoela ezer eraikitzerik, benetako eragina 640.000 metro karratuko ia izango litzateke.

**J**ende askoren itxaropena gauzatu zen Mendillorriren proiektuak aurrera egin zuenean. Nafarroako etxebizitzaren betiko joera hausteko ahalegina sozialisten lege-gintzaldian sortu zen, Federico Tajadura kontseilari zelarik, eta orduz geroztik lurraldeko egitasmorik nagusienetakoa izan zen. Hogei mila lagun ingururendako etxebizitzak, prezio onean, eta Administrazioaren babesean, Iruñerriko prezioen hazkundeari irtenbidea ikusi zioten askok bertan. Iaz sartu ziren lehendabizikoak, baina uda honetan hasi dira gehienak etortzen.

Oraindik, baina, amestutako hiria hiri hutsa da, nahiz eta jendez beterik egon. Dendarik ez, zerbitzurik gabe, konponketen zarata da nagusi, eta bertan dauden hiriaren lasaitasuna azpimarratzen dute. Badira, baina, bertan bizitzeko zorterik oraindik izan ez dutenak, arazo franko izan baitituzte kooperatibek eta etxegileek hiru urte hauetan. Berriena VITRA kooperatiben etxebizitzaren atzerapena. Hala ere, gero eta hiri erreala da Mendillorri, batzuek oraindik ametsa besterik ez bada ere.



Obraz eta autoz beteriko hiria da egun Mendillorri.

JOXE LACALLE

## Amestutako hiria

ALBERTO BARANDIARAN / IRUNEA

Askok amestutako hiria da, eta, hala ere, kanpotik ez du ematen. Kanpotik porlan eta adreiluari eginiko omenaldia dirudi, monumentu erraldoia, Iruñeak berarendako nahi izan ez zuen pilaketa balitz bezala. Askoren ametsa baina. Nafarroako hiri berria, marka guztiak hautsiko dituen. Sei mila bizilagun inguru daude jada, baina ez da inondik inora sumatzen. Konponketen eta azken ukituen zarata besterik ez. Pintura eta igeltsuaren usain berria baino ez. Hiri berria, alegia. Hiri amestua.

Federico Tajadura aurreko Hirigintza kontseilariaren gogoko helburua izan zen, eta kosta lain kosta aurrera eraman, eraman ere. Ordurarte ezezaguna zen izen ederreko herrixka honetan, Eguesibarren, Nafarroa osoko etxebizitzaren erreserba egiten zen, arlo honetan sekulan gauzatu zen ahalegin publikorik handiena. Eta horrelakoetan gertatzen den bezala, oztopoz beterik. Hasieran Eguesibarren beraren

**N**ahiz eta dagoneko 269 etxebizitzak eskuratuta izan, ez da jenderik ikusten Mendillorriin.

kontrako jarrera izan zen, Gobernuaren iniziatibak udal eskumenekin topo egiten zuelakoan. Juan Cruz Alli gaur egungo lehendakariaren eta Tajaduraren arteko liskarrak sonatuak izan ziren, hura udalen eskubideen 'defentsan' aritzen zenean. Ondoren etxebizitzak eskuratzeko zerrenden inguruko polemikak, alderdikeria salaketak... Orain, enpresa eraikitzaileen arteko desadostasunak, porrotak, atzerapenak...

**JENDE GUTTI HIRIAN**

«Guk zorte handia izan dugu. Bi hilabete baino ez ziren berandutu etxebizitzak ematean, eta kontent gaude oso. Polita eta ongi egina dago». Maite eta Juan ohizko mendillorritarrak izanen dira. Ezkondu berriak, gazteak, eta alaba ere jaio berria. Gaztetasuna eta ilusioa montioka. Duela bi aste heldu ziren beren etxebizitzak berri-berria, eta oraindik ez dute inor ezagutzen, ezagutzekorik ere ez baitago, antza.

Izan ere, eta nahiz eta dagoneko 269 etxebizitzak jabeek giltzak eskuan izan, ez da jenderik ikusten Mendillorriin. Etxe eta auto asko, baina jende gutti. Soilik igeltsuak, iturginak eta pintoreak. Eta zarata, zarata handia. Zulagailuak, mailuak, iltzeak... Hiria eraikitzen. Iaztik hor daude lehendabizikoak, etxebizitzak alokatuetan, baina gehienak uda honetan heldu dira, eta irailaren hasierarako espero

dute jende kopuru handiena etortzea.

Horretarako ari dira gogor lanean lokaletan. Ez baita dendarik, oraingoz, urbanizazio berria. Lehenbizi, beti bezala, aurrezki kuxkak heldu ziren, dotore-dotore. Duela gutxi zabaldu zen liburudenda ere, baina karrelek etorkizun oparoa iragartzen diote hiri berriari: 'Gozodenda eta kafetegia. Laster irekia'; 'Emakumezkoendako ileapaindegia'; 'Liburudenda eta papertegia. Laster zabalduko da'... eta horrela toki frankotan. Bitartean, zernahitarako, Iruñera joan behar.

**OGIA SOILIK EROSGAI**

«Hipermerkatura joaten da jendea, nahiko hurbil baitago, baina edozertarako alde egin behar duzu. Soilik ogia ekartzen dute, egunero, furgoneta batean». Maitek ongi asko daki zer den eskasia hori, Zapateria kaleko burrunbatik igaro baita, itsumustuan, lasaitasunera, bakar-dadera ia. Lehendabiziko egunetan, artean haundun zegoela, igogailua gelditu egin zitzaizkien berari eta ahizpari pisua bisitatzera joan zirenean. Ordu erdiz aritu ziren oihuka eta kolpeka, beldurrez, kasualitatez handik igarotzen zen bizilagun batek aditu zien arte. Berari ere antzekoak gertatu zitzaizkion, eta jakin izan zuen nola atera. Juan, senarra, pozik dago. «Lasaitasuna izugarria da, pisua ederra da,

argi handikoa, eta heltzean, beti daukazu aparkatzeko tokia. Haur paradisua da».

'Haurdunaldiaren analisiak egiten dira', dio farmazia berri eta bakarraren atean dagoen kartelak. Izan ere, bikoteak baitira herritar berri gehienak, eta 16 urtetik behekoen kopurua % 41-koa izanen da. Horretarako hiru mediku, pediatria bat eta lau eriazain dabilza dagoneko inauguratu berri den kontsultorioan, eta «beharren arabera», beste pediatriaren bat ere jarriko dela azaldu zuen Calixto Aiesa kontseilariak inaugurazio egunean. Behar, beharko da, haurrak beterik ez baitaude. Enparantzetan, kaleetan, eta Mendillorriko bigarren faseari dagokion ingurura igotzeko dagoen gaztelu eta lakuaren ondotik, horiek dira biztanleak.

**EGUESIBAR EDO IRUNEA?**

Irail aldera helduko dira gehienak, esan bezala, eta bitartean, itxura hartzen ahalegintzen ari da hiri berria. Calixto Aiesa kontseilariak 'Barañain'

**B**ikoteak dira herritar berri gehienak, eta 16 urtetik behekoen kopurua % 41-koa izanen dela azaldu du Osasunbideak.

Mendillorri,  hiria eraikitzen

**E**guesibarko dermioan kokatuta, honek ez du bereganatu nahi, azpiegiturak eta egin beharreko inbertsioak handiak direlako.

izena aipatzen zuen 'Mendillorri' esan nahi zuenean, eta horrek, bitxikeria hutsa izanda ere, beste herrietan —Berriozar, Barañain, Zizur Nagusia—, gertatu zen antzeko fenomenoak dakar gogora: identitatea bilatzea. Eguesibarko dermioan kokatuta, honek ez du bereganatu nahi, azpiegiturak eta egin beharreko inbertsio handiak jasan ezin izango dituelakoan, eta inkesta eta guzti egin zen bizilagunen artean. Emaizta: eguesibartarrek ez dute Mendillorri nahi. Iruñeko Udalak ere ez du gogo handirik teoriarik 20.000 biztanle izan litzakeen erraldoi berri honen —Nafarroako hirugarren hiria izango litzateke— ardura hartzeko. Soluzioa Udala osatzea litzateke, aurrekoek egin duten bezala, baina horretarako ibilbidea luzea da oraindik.

Bitartean Burlatako enpresa pribatuak garbitzen ditu kaleak, Viveros de Navarrak jasoten du zaborra, eta Eguesibarkoa da taxi bakarra. Autobusik ez oraindik, eta auto pila, andana. Arratsalde partean heltzen dira gehienak, etengabe. Denek zeharkatzen dituzte kale hutsak eta elkarri behatzen diote, begirada azkarraz, ezagutzen ote duten ikusteko. Agur gutxi, eta etxera. Amestutako etxeetara.



VITRA kooperatibak izan ditu arazo franko azkenotan.

JOXE LACALLE

## Kooperatiben mugimenduaren oztopoak

A. B. / IRUÑEA

Mendillorriren garrantzia, 20.000 pertsona ingururendako hiri berria Iruñea ondoan eraikitzeak daukan garrantziaz aparte, etxebizitzaren alorrean ordurarte zegoen joera espekulatuarekin haustea izan da. Kooperatiben bidez, langile eta maila ekonomiko ez oso altua zeukan jendeari etxebizitza merkea eta kalitatekoa eskaintzea zen helburua. Bidean oztopo franko izan badira ere, proiektuak, orokorrean, arrakasta izan duela esan daiteke.

Ez zen erraza, interes politikoko eta ekonomiko indartsuak baitzeuden tartean. Hasieran gobernu sozialisten proiektu bezala hartu zen, baina UPNko gaur egungo agintariek ere segida eta laguntza eman dute arazoak konpontzeko. Oztopoak, baina, izan dira, izan ere. Hasieran udalaren kontra zihorlakoan, gero etxebizitzak lortzeko izena ematera koan, askotan aipatu baitzen alderdikeria zerrendetan sartzeko, eta orain, lanekin beraiekin. Batzuk kexu dira oso lanaren amaieraz, eta beste batzuek ez dute zertan kexu izan, epe guztiak amaituta egongela izan beharko zuena porlana eta igeltsua besterik ez baita. Azken hilabeteotan frankotan aipatu da VITRA kooperatibaren arazoa, lanak hasiak zituzten bi enpresek porrot egin ondoren, zorrak kitatu gabe gel-

ditu diren enpresari txikiak ez baitute lanak hasten uzten.

«Sozialistek bultzatu zuten Mendillorri, eta UPNk lekukoa hartu du, baina tartean badago kooperatibarik nahi ez duena, eta suari garrak bota dizkio». Cayetano Rodriguez VITRAko zuzendariak gertutik bizi ditu kooperatiben arazoak, eta inork baino esperientzia handiagoa izanda ere —VITRAk, CCOO sindikatua bultzatutako kooperatibak, urte dezente darama Euskal Herrian ezezik Espainia osoan babes ofizialeko etxebizitzak eraikitzen—, presioak eta arazoak gogorak izan direla dio.

**BI ENPRESEK PORROT**

Hasierako fasean ez zuen lur sailik lortu, baina bigarrenetan 254 eskuratu zituen. VTS enpresa tuterarrarekin hasieran, honek arazoak izan zituen etxebizitza-

ren azpiegitura osoa altxatuta zuelarik, eta SPI enpresari utzi zion kontratua. Hala ere, uztailean honek ere porrot egin zuen, ordainketa franko kitatu gabe utzita, eta hirugarren etxe eraikitzaileari ez diote lanak hasten uzten, aurreko zorrak ordaintzen ez diren bitartean. VITRAren zuzendariari «zentzugabekeria» iruditzen zaio egoera, «ez baifá bidezkoa erruak faltarik ez duenari leporatzea», eta esperientzia faltari eta aurreko urteetan egindako diru errazari egotzen dio errua. «Olinpiadekin eta Sevillako Exporekin izugarritzko gorakada izan zuen etxegintzak, eta jende askok diru erraza egin zuen. Hala ere, administrazioek diru asko zor dute, eta jakina, krisi garaian lana asko jaitsi denez, indartsuenek soilik eutsiko diote egoerari». Bere ustetan, VITRAk zorte txarra besterik ez du izan, «errurik ez baitu egin», baina beste kooperatibetan izaniko arazoak esperientzia faltari leporatzen dizkio. «Kooperatiba askok pairatu izan dituzte administrazioaren trikimailu guztiak ez ezagutzaren ondorioak, baina hori normala da, hemen ez baita kooperatiben tradizioz izan».

VITRAren etxebizitzaren arazoa konpontzeko asteazkenean ziren elkartekoak alde guztiak Gobernuarekin, eta Rodriguezek etxeak apirilera amaituta egongo direla dio. «Enpresak esan du ezin izango duela lau hilabeteko atzerapena berreskuratu, eta abendurako aurrikusita zeudenez... Hala ere guk indar egingo dugu lehenbailehen buka ditzaten».

Rodriguezen ustetan, Mendillorri garrantzi handia izan du Nafarroan, eta prozesua bertan ez dela geldituko dio. «Nafarroan badago jabea izateko tradizioa, eta horrek askotan espekulazioa eraman du. Mendillorri izan da makroproiektu bat Nafarroarako, joera hori hausteko, hain zuzen ere, eta oso ongi egina. Hortik jarraitu behar da».



Hiria bere itxura hartzen ari den bitartean, haurrak dira nagusi toki orotan.

ALBERTO BARANDIARAN



## Bizi Bizian

**A**zken 25 urteetan bezala, aurten ere Uharte-Arakil izango da Nafarroako artzain guztien topaleku nagusia. Igandean ospatuko da Artzai Eguna 93 Geinberako barrutian eta bertan parte hartuko dute Urbasan, Amaiurren eta Orbaiztan

aurrera pasatu ziren artzainek eta beren txakur biziek. Beraiekin batera, iazko txapelketa egongo da. Urtero bezala Uharte-Arakilgo Aralar-Mendi elkarteak hartuko du bere gain antolakuntza guztia.

# Euskal artzainei omenaldia

EDURNE ELIZONDO / IRUÑA

Nafarroako Artzai Egunaren 26. edizioa ospatuko da igandean Uharte-Arakilgo Geinberako barrutian. Hogeita sei urte dira herri hau, abuztuaren azken igandean beti, inguruko artzain eta ardi txakur onenen topaleku dela. Eta lehen urtetik, Uharte-Arakilgo Aralar-Mendi elkarteak hartzen du bere gain egun hau antolatze-ko ardura. Antzinako artzainak aspaldian geratu ziren oroimean baina Galiziako sorginez erraten den bezala, artzainak... egon badaude.

Jose Maria Ustarroz Aralar-Mendi elkarteko kidea da eta honela kontatzen ditu Artzai Egunaren hastapenak: «Euskal Herrian Oñatiko talde batek eman zion hasiera Artzai Egunari. Ongi ezagutzen zituzten Uharte-Arakilgo inguruak eta beste hainbeste herritan bezala hemen ere Artzai Eguna ospatzea pentsatu zuten». Hasieran, artzain txakur-  
ren lehiaketa soilik egiten zuten baina Jose Maria Ustarrozek erraten duenez, «urte batzuetara, jende asko biltzen zela ikusirik, beste zenbait gauza egiteko aukera aprobetxatu genuen». Gaur egun, artzain txakur-  
ren lehiaketa, ardi erakusketa eta lehiaketa eta ardi moztea ere egiten dira, «Artzai Eguna guztiontzat benetako jai egun bihurtuz». Gainera, esku-langintza erakusketak izaten dira eta produktu guzti hauek erakustez gain saldu egiten dira. Benetako azoka da Uharte-Arakilgo Artzai Eguna eta salmenta handia lortzen da. Ustarrozek Artzai Egunak duen garrantzia nabarmenki azpimarratzen du, «gure produktuak ezagutu, zabaldu eta gehiago saltzeko balio baitu; eta hau oso ona da kontuan hartuz gaur egungo nekazaritza eta abeltzaintzaren egoera txarra». Beraz, Artzai Egunak sektore honen suspertzea du helburu, bere produktuen promozioa egitea, hain zuzen ere. Ustarrozen hitzetan hau oso garrantzitsua da, «bestela nekazaritza hil egingo baitzai-  
gu».

**NEKAZARITZAREN ATZOKOAK ETA GAURKOAK** Artzainaren figura betidanik ezagutu da Euskal Herrian. Antzina, familia guztiek bazituzten ardiak. Orain, artzain gutxiago dago eta ardi gehiago. Gauzak asko aldatu dira. Gaur egungo artzainek laguntzak badituzte baina baita arazo asko ere, Jose Maria Ustarrozek azaltzen duenez, eta horregatik, «denon laguntza



Geinberan txakur eta artzain onenak bilduko dira.

eta ezagutza behar dute». Bere ustez, Nafarroako zelaietan badira beste gauzak, baina mendiko nekazaritzarentzat ardiak funtsezko garrantzia dauka. Hau kontuan hartuz, «Artzai Eguna bezalako ekitaldien garrantzia oso handia da».

Atzokoak eta gaurkoak bat eginez ere, alde batetik nekazaritza eta abeltzaintzarako tresna eta

modu berriak erakusten dira Uharte-Arakilen eta, bestaldetik, atzoko moduan, prozesu guztia eskuz egiten dutenak ere badaude. Honela, adibidez, gazta egiteko antzinako eta gaur egungo erak elkarrekin aurkezten dira. Ustarrozen erranetan, «atzokoa ahaztu gabe eta ohiturak gordez, gure produktuak gaurko merkatura egokitzen saiatu behar dugu,

hor baitago etorkizuna; berritu edo hil».

Artzai Egunean txakurak, ardiak, gaztak eta gainontzeko guztiak batuz, arrakasta handia lortu dute Uharte-Arakilen eta inguruko baserriar eta artzainek beren jai eguntzat hartu dute. Nafarroan, gainera, Jose Maria Ustarrozen ustez, maila altua dago horrelako txapelketetan. Euskal

Herriko gainerako lurraldeetan ere ospatzen da Artzai Eguna baina inon ez da egun beteko ospakizuna Uhartean bezala, eta honen, «berezia egiten du hemengo». Igandean beraz, Artzai Eguna 93 ospatuko da Uharte-Arakilen. Pilotalekuan egingo den herri bazkaria eta guzti, jai egun ederra igaro nahi duenak, bertan du bere lekua.

## Txakur-erakusketa

E.E. / IRUÑA

■ Uharte-Arakilgo Artzai Egunean Urbasa, Amaiur eta Orbaiztako txapelketetan sailkatu diren artzainek hartuko dute parte, eta beraiekin batera, iazko Nafarroako Artzai Egunaren irabazlea den Felix Irigoien, 'Kubino' bere txakurarekin. Igandean txapela lortzen duenak, Nazioarteko lehiaketan hartuko du parte irailaren 19an eta baita Euskal Herriko Artzai Egunean ere, irailaren 12an, bigarren postua lortuko duenarekin batera. Gainera, Euskal Herriko ardi txakur-  
ren lehiaketa ere egongo da igandean eta hurrengo edizioarako, txakur hauen arraza estandarra zehaztu egingo dute.

Artzain eta txakurrekin batera, Nafarroako ardi latxa izango da protagonista. Nafarroan mota honetako 190.000 ardi dago eta jeztan diren etatik urtero 6 milioi litro esne lortzen da. Uharte-Arakilen egiten den Nafarroako ardi latxaren erakusketa eta txapelketa, Nafarroako Foru Komunitatean urtero egiten diren etatik osoena eta zaharrena da.

Gainera, gazta txapelketa izango da, eta ardi latxaren erakusketa eta txapelketarekin batera, ardi-mozte lehiaketa egingo da. Urtean zehar egin izan diren froga guztien puntuak batu ondoren Espainiako ardi-mozte txapelketaren garailea nor den jakingo da Uharte-Arakilen.

# Pili Yoldi

Kazetaria

**K**azetaria lanbidez, ezaguna zen oso Nafarroan ekologia eta nazioarteko gaietara atxikimenduagatik. Pasa den urrian joan zen San Salvadorrera, hasieran mugarik gabeko bidaira, eta han eman ditu bederatzi hilabete, dagoeneko ongi ezagunak zituen Ertamerikako arazoak eta errealitateetan zertxobait gehiago sakontzearen. Itzulian, gauza batzuek zapuztu eta besteek liluratu dute. Hau da azkenotako bati buruzko elkarrizketa.

## «Guatemalako egoera apenas aldatu da»

ALBERTO BARANDIARAN / IRUNEA

San Salvadorren ia urtebete lanean eman ondoren, menditik hirira jeitsi berriaren zen Radio Farabundo Marti-n lan egiten, uztailearen erdian Guatemalara abiatu zen, bertan dauden Comunalidades Populares de Resistencia (CPR) izeneko herrietara laguntza moduan antolatu zen talde internazionalaren barruan. Bertan martxa egin zuen duela 12 urte beren herrietatik egotzitako guatemaldarrek, jatorrizko herrietara egin zuten bidaian. Hala ere, eta Ramiro de Leon Carpioren presidente berriarekin «gauza gutxi» aldatu direla dio.

**EGUNKARIA.**— CPRak duela 12 urte sortu ziren. Baina nola irauten dute egun guzti hauetan?

**PILI YOLDI.**— 60.000 lagun dira, Guatemalako iparraldean, Mexicoko mugatik oso gertu. Batzuk daude Ixcán eta Xalbalen arteko ibaien ondoan, eta besteak Cuchumatanes izeneko mendietan. Guatemalako gerrilak 33 urte dauzka dagoeneko, Ertamerikako gerrilarik zaharrena baita, eta Ríos Montt presidentea zela izan zen errepresiorik latzena. Saraskeri izugarriak izan ziren orduan, eta 400 herri inguru desagertu ziren, basoekin batera. Jende askok aldegin zuen orduan, eta gehienak Mexicora joan ziren. Beste batzuk ordea, Guatemalan gelditu ziren, ezkuturik, mendian bizitzen, eta beti eskapoan. Horrela eman dute 12 urte, armadatik ihesi. Hala ere, beti esan dute haiek ez direla gerrilariak, populazio zibila baizik, eta beti eskatu dute onarpen hori. Duela bizipahiru urte hasi ziren politika berri batekin, eta hango elizaren laguntzaz, argira atera behar zela zioten.

**EGUNKARIA.**— Baina herri osoek alde egin zuten iparraldera

eta Mexicora, edo batzuk bertan gelditu ziren?

**YOLDI.**— Badira herri osoak alde eginda, eta Ixcánen, kasu, zortzi etnia daude nahastuta. Mendizerran, baina, Nebaj, Chajul eta Cotzal herrietakoak dira gehienak. Zonaldeen arabera, batzuk gelditu ziren, baina besteetan denek alde egin zuten. CPR haiek, berez, nahiko ezkuturik daude, mendizerraren artean, eta postuak badituzte toki guztietan, armadatik babesteko. Denetarik dute landatuta —bananak, kafea, artoa—, baina hori gero saltzera eramateko bertatik atera behar dute, eta lehendabiziko herria bi egunetara dago. Gainera, tartean dago armadaren postu bat eta bi

'harriska modelo' deitzen diren horietakoak. Horiek izan ziren errepresio ondoren armadak jarritako herriak, jendea kontrolatzeko. Han bizi direnak armadaren aldekoak dira. Orduan, CPRkoek, hortik pasatzerakoan denetarik jasaten dute: dendak

**G**uatemalaren iparraldean dauden CPRetan bizi direnen helburu bakarra da gobernuak populazio zibila direla onartzea».

ixten dizkiete, tiroka hasten zaizkie... arazo pila. Orduan, pasa den otsailean hasi ziren martxa bat antolatzen, elizaz lagundurik. Asmoa zen bidea irekitzea, komertzioan eta denetan libre ibiltzeko, armada eta patrullarik gabe, baina justu egun batzuk beranduago armadak beste postu bat zabaldu zuen bide erdian. Orduan, orain, ekainean, beste martxa bat antolatu zuten, orain nazioarteko jendeak —kazetariak, medikuak, irakasleak, laguntzaileak— babestua, nolabait esateko. Osotara 57 ginen, batzuk mendizerrara, eta besteak Ixcánera.

**EGUNKARIA.**— Orduan, helburua jatorrizko herrietara itzultzea

zen?

**YOLDI.**— Bai, baina ez han gelditzeko, soilik senideak ikusteko eta bidea betirako irekitzeko. Caba, Santa Clara eta Xeputul izeneko herri berrietan bizi dira eta han gelditu nahi dute. Orain, beren helburu bakarra da gobernuak populazio zibila direla onartzea. Eta bizitza normala egin nahi dute eraiki dituzten herrietan. Aurten, adibidez, jasoa zuten lehendabiziko arto uzta, azken zortzi hilabetetan ez baitzuten bonbardaketarik jaso. Lehen palmondekin egiten zizuten teilatuak egurrezkoak dira, animaliak dituzte, eskola, osasun etxea, kasik denetarik.

**EGUNKARIA.**— Eta zer nolako antolamendua daukate han?

**YOLDI.**— Hori da harrigarriena eta positiboena. Dena da taldean egindakoa eta batzarretan erabakitakoa. Adibidez, ez dago medikurik, baina osasuna Guatemalako herri gehienetan baino hobea da. Eskoletan haur guztiak jasotzen dute irakaskuntza, egurrezko taulak eta ikatza erabiltzen dituzte koadernoaren ordez, eta tailerrak, bigilantzia, dena da elkarrekin egina.

**EGUNKARIA.**— Ramiro de Leon Carpio presidentea denetik zerbait aldatu da?

**YOLDI.**— Oso gutxi. Aurretik Giza Eskubidetako Prokuradorea izan zen, eta CPRtara bisita egin zuen. Horrek esan nahi du nolabaiteko onespena, berak hitz onak izan baitzuten. Hala ere, presidentea denetik, askotan eskatu diete elkarrizketa, baina ez du erantzun oraindik. Jendeak konfidantza handia dauka beregan, baina Mario Enriquez Jenerala Defentsa Ministroak oraindik esaten du beraiek gerrilariak direla. Orduan, demokrazia badago, baina gauza gutxi aldatu dira.



Nebaj herriko Maria eta Luisarekin.

## NISKIJATOR

© Zaldi Eroak



### 'Mars Observer' untzia kontrolatzeko azken ahaleginak egiten ari da NASA

GURE EROAK, NAFARROA KAPTAINA, MARTITZEN IRAKASTEN DU 4. URRATSA, IKASLE EZIN MOTIBATUAGOEKIN

galtzea Marte ikertzeko plangintzaren porrota litzateke



EUSKARA MARTITZAR HIZKUNTZA BAKARRA!!



HUNKIGARRIA!